

Josep Sanchez Llibre

Unio Democratica de Catalunya-ko Gobernu Batzordeko kidea

Batzorde baten egokitasun eza

■ Apokalipsiko tronpetek aspaldi jo zuten oraingo legeintzaldirako, eta seinale guztien arabera iristear du amaiera. Eta hala ere, alderdiek, etorkizun hurbilerako dituzten programen aurrerapen bat eskaini beharrean, borroka antzuetan ktramilatzeraz kondenatuak dirudite, la-bankadazko *vaudeville* tragikomiko batean, aktibitate politikoari izen txarra baizik ekartzen ez diotela.

Azken erakusgarria, inolako dudarik gabe, Senatuari GAL azuia ikertzeko batzordea sortzearena da. Egia da batzorde horrek formaren aldetik baduela lekua Konstituzioaren 76. artikuluko aurrikuspenetan; egia da halaber Senatuak onetsi duela, suspense eta guzti, bere Araudiak dioenari atxiki. Hori dena hala izanik ere, ordea, jendearen ustea oro har —hau da, herritarrek sentitzen dutena— hauxe da: mekanismo horren instrumentalizazio bat besterik ez dela izan, helburu bakarra —beharbada merezia— gobernuari higitu eta erasotzea duelarik.

Ikerketa batzordeek beren berezko funtzioa betetzen dute edozein gertaera hurbilen alde politikoa aztertzen badute (Rubio eta Roldanen kasuak) edo Gorteetan osatu nahi badira *ad hoc* sorturiko organo bereziak gertaera nabarmenen bat jarraitu eta kontrolatzeko (Banesto batzordea).

Baina GALen kasuan ez dugu geure burua engainatu behar: Senatuari batzordeak ez dio ezer berririk ekarriko halako kasu larrietan Auzitegi Gorenak egiten duen ikerketari; ikerketa horrek, dudarik gabe, garrantzia gehiago eskainiko du, hala teknikoa nola prozesalako, senadoreen lanak baino, hauek den borondate onena izanda ere. Argitasun eta zehaztasun dexentearekin esan izan den legez, Moner magistratuak konfiantza handiagoa ematen du Anguita, Alvarez Cascos edo Rahola jaun-andereek baino, edo zain baitira ere batzorde hori osatuko dutenak.

Senatuari ere ez da kasu honetan erantzukizun politikoa garbitzeko deitua. Ez du aukerarik, zeren eta hain hurbil izanik hauteskude deia eta hedabideetan halako publizitatea izanik, epaile erabakitzaile eta zorrotzarena egitea herritarrei soil-soilik baitagokio.

Zer egingo du, bada, GALen batzordeak?

Nire iritziz, erakundearen ospea are gehiago iluntzen ikusiko dugu, denok baitakigu funtsean alferrikakoak direla egin daitezen agerraldiak. Ez da muina bilatzen, forma baino, inork ez baitu zer gertatu den jakin nahi baizik eta deituko direnen argazki laidoargaria ikusi.

GALen kasuan ez dugu geure burua engainatu behar: Senatuari batzordeak ez dio ezer berririk ekarriko halako kasu larrietan Auzitegi Gorenak egiten duen ikerketari; ikerketa horrek, dudarik gabe, garrantzia gehiago eskainiko du senadoreen lanak baino, hauek den borondate onena izanda ere.

Hori horrela bada, eta beldur naiz hala den, zertan lagunduko diogu gertaeren argitzeari?

Zentzu praktikorik ez duen eta helburu partikularrak bilatzen dituzten batzorde bat, berez, batzorde gaiztoa da. Argi dago GALen auziak merezi duela herritarren eta herritarren ordezkarien artea eta gaitzespen osoa; argi dago, halaber, banda hori izan dela gure demokraziako gertaerarik larrienetakoa. Baina zentzugabea da —eta adierazgarria— erantzukizun politikoa eskatu nahi izatea hamar urteren buruan, hain zuzen Auzitegi Gorenak berak ikertzeari ekin dionean. Gaur jantziak urratzen ari direnen iskanbila ez dator bat bere garaian mintzatu ahal izan eta isildu zirenen isiltasun patetiko, konplize eta susmagariarekin. Eta GALen argitzea gaur Estatu gaia baldin bada, zergatik egiten diote batzuek uko ikerketa Intxaurrendoko hormen barruraino hedatzeari?

Mundu guztiak daki Senatuari batzorde honek nekez hasiko duela lana, eta amaitu sekulan ez duela amaituko; ez dirudi batzordeak jarduteko borondatearik ere dagoenik. Beraz, Senatuari instrumentalizatu eta higidura mekanismo bihurtzea soilik da kontua. Eta, teleologikoki, ikerketa batzordeak ez horretarako sortu dira ez inola ere ordezka ditzakete zentsura moziari buruzko aurrikuspen konstituzionalak.

Uste dut erakundearen instrumentalizazio saialdi honenkin, bultzatzaileetako zenbaiten asmoa laudagarria izanik ere, herritarrei etsiarazteko arriskua dugula. Gainera, halako jokaerarekin, autoritate moralez hustu egiten dugu gerra or litekeen edozein batzorde, erakutsiko baitugu propaganda eta demagogia helburu hutsak estaltzeko erabili direla.

Herritarrek *argia eta taktikak* eskatzen dituzte, eta erantzun egin behar zaie. Eta dudarik gabe kasu honetan auzitegiei dagokie eginkizun hori.

Bitartean, eta azken gertaerak erakusten dutenez, politikoko gogoeta egin dezakegu ea zilegi den gizartearen gardentasun nahia manipulatu eta erakundearen egongaitasuna soilik bilatzen duten jarrera demagogikoetan erortzea. Erakundeek kalte egiteak ez du Estatu ikuspegiarik batera erakusten, eta, finean, deskribatu duguna bezalako jarrera bat ere sistema demokratikoaren kontrakto bete-beteko erasoa da. ■

Erredakzioaren itzulpena

J.R. Etxebarria



Gaixorik dago

Gaixorik dagoelako gertatu dira gertatu direnak, zauria garbi ixten ez den bitartean, zoltzeko arriskuan baitago eten-gabe. Bizirik eta indarrean diraueno, injustizia estalezina baita, eta inguru guztia zoldurik jartzen baitu.

Orain arte sendagarri desegokiak erabili izan dituzte. Xarabea eman beharrean, palua, errepresioa. Parteen arteko akordioa aurrera eramanean, inposizioarako kontsentsua. Alferrik baina, egunetik egunera gaixoa gaixoago baitago.

Sendabidean jarri nahi izan zuten noizbait, eta akordioaren errezeta idaztera iritsi ziren, hainbesteraimo ze, errektore-medikuak sinatu egin zuela, lekukoan aurrean sinatu ere, euskaldunaren hitzari funtzionarioaren sinadura gehiturik. Paperak ordenan zeuden, beraz. Baina idazkari-zak inspektoreek —ez dut uste, kasu honetan ikuskatzaileak esatea egokia denik— balorik barik utzi nahi izan zuten akordioa. Errezetak, ordea, legitiimoa izateaz gain, legearen eskakizunak betetzen zituen. Eta bertako sinadurak zutik dirau.

Medikuaren ostean etorriko den doktore berririk adorerik izango ahal du errezeta bere osotasunean erabiltzeko! Horixe baita abiapuntu bakarra, hain gaixorik dagoen umibertitate sendabidean jar dadin.

Txillardegia



UPV adelante

UPV-EHU omen da. Baina UPV letrak aski dira. Oraintxe zabaldu dute gure artean *Campus*a aldizkariaren 22. zenbakia. Aurrekaldean Ardanza eta Gorienea ikus ditzakegu, Sarriko-ko Zabalpen ekitaldian (urriaren 5ean burutua). Hau esan omen zuten Lehendakariak: «Gizarteak eskatzen duen elebitasunari erantzuteko gai izan behar du Umibertitateak».

Hots, datorrigun Erretore berria, Pedro Luis Arias kandidatoa, elebakarra da. Eta «arraina burutik kirasten denez», ziur da Erretoregoa erdara hutsez arituko dela. Are okerrago: 84 irakasle berri kontratatuko omen ditu UPVak; eta hauek bai: hauek euskararen maila frogatu beharko dute, ahoz eta izkribuz. Erretoreak ez du ezer frogatu behar: erdara hutsez. Ya vale.

Berri horiekin batera, dohainik zabaltzen zaigun *El Periódico Universitario* delakoan 33. alea zabaldu digute. Euskararen tasa hau da: orrialde heren bat euskaraz, *Elkarri*-ren bisita azaltzeko; eta beste orrialde heren bat *Donostiako gazte-txeaz* hitz egiteko. Kasetak 24 plaura dituzte: % 97 erdaraz, % 3 euskaraz.

Joserra Etxebarria irakaslea, artean, kotxe azpian gerizatzu salbatu da joan den asteko *egurraldiaz*: Mijangos eta beste irakasle euskaldunek jipoi galanta hartu bitartean, Irudia ezin adierazgarriagoa da: Joserra kotxe baten azpian izkutaturik; eta euskaraz ez dakien erretoregaiak, harki mordska bat lagun, *aulkia* lortzeko abian, harro eta irmo.

Ondo, jakina.

L A P h I T Z A

